



UDALAREN KIROL PATRONATUA

PASAIA UDALERRIKO KIROL JARDUERETARAKO

DIRU-LAGUNTZAK ESKATU ETA EMATEKO OINARRIAK

1.- GAIA:

Oinarri hauen bidez Pasaiako irabazi-asmorik gabeko kirol-klub eta entitateei laguntza ekonomikoak eskatu eta emateko irizpideak arautu nahi dira, talde horiek urte osoan antolatzen dituzten kirol-jarduerak egin ahal ditzaten.

Pasaiako udalerrian garatuko dituzten jarduera eta egitarauak Kirol Sailak dituen helburuekin bat etorriko dira.

Jarraian zerrendatzen diren ataletan oinarrituko dira diru-laguntzak:

- Urteko programak
- Ezohiko jarduerak: udalak ezohikotzat joko ditu aparteko izaera izateagatik urteko programaketa egiterakoan aurrez ikusi ez direnak. Patronatuak erabakiko du jarduera bakoitza ezohikoa den ala ez.

2. AURREKONTUAREN AURREIKUSPENA

Pasaiako Udalak urtero aurrekontuaren partida bat diru-laguntzak emateko gordeko du. Diru-laguntzen zenbatekoa ebazpenaren unean dagoen diru-kredituaren arabera izango da.

3. IRIZPIDE OROKORRAK

- a) Diru-laguntza borondatezkoa eta behin-behinekoa izango da.
- b) Diru-laguntza emateak ez du udala horretara derrigortzen, ezta gerora eman daitezkeen diru-laguntzetan eskubiderik edo aurrekaririk ezartzen ere.
- c) Diru-laguntza jasotzen duten elkarteek 9. puntuan jasota dauden hizkuntza baldintzak bete beharko dituzte.

4.- ONURADUNAK:

Diru-laguntza **Pasaiako udalerrian** kirol arloan egitasmoak bultzatzen dituen irabazi-asmorik gabeko **edozein pertsona fisiko edo juridikok, publiko edo pribatuk** eskatu ahal izango du.



Elkarteek, **Elkarteen Udal Erregistroan** izena emanda egon behar dute. Dena dela, salbuespen gisa, zenbaitetan onartu ahal izango dira Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistroan edo beste erregistro publikoren batean izena emanda duten elkarteak, noizean behin Pasaian jardueraren bat egiten badute eta udalaren presentzia interesgarritzat jotzen bada.

Pasaiakoak direla esaten denean, Pasaian bertan egoitza dutela esan nahi da. Horretaz gain, taldeko kirolarien artean, gutxienez %25 pasaitarra izango da, edota euren kirol-jarduerak Pasaian burutuko dituzte. Pasaian burutzen ez diren kirol jarduerak ez dute laguntzarik jasoko.

5.- ESKAERAK ETA HORIEK AURKEZTEKO EPEAK:

- Eskaera egiteko, udalak **diru-eskaeretak** prestatuta daukan eredia erabili beharko dute. Idazki hau Pasaiako Udaleko Gazteria eta Kirol Sailean jaso daiteke.
- Eskaera-idatzian azaltzen diren atal guztiak bete beharko ditu eskatzaileak
- Eskaera-orriak Pasaiako Udaleko **Gazteria eta Kirol Sailean bulegoan** aurkeztuko dira, (Euskadi Etorbidea, 61- 20110 Pasaia). Eskaera-orriez gain, honako hau aurkeztu behar da:
 - a. Elkarteen Udal Erregistroan edo, hala bada, salbuespen gisa, Eusko Jaurlaritzaren Elkarteen Erregistroan, izena emanda dagoela adierazten duen agiria.
 - b. Urteko ohiko jardueren egitasmoa edo ekintza zehatzaren egitasmoa. Honako hauek jaso behar dira:

Ekintzen programa. Datak eta epeak, metodologia, aurreikusten diren helburuen zehaztapenak, zein herritarri zuzenduta dagoen, etab. (A fitxa)

Sarreraren eta gastuen aurrekontu zehatza. Sarreraren kasuan, nondik eta zenbat jasotzen den zehaztuko da. Gastuetan, zertan eta zenbat gastatu den (B fitxa).

Diru-laguntza eskatzen dutenek Kirol Patronatura zuzendu behar dituzte eskaera-orriak eta dokumentazioa. Guzti hau Pasaiako Udalaren sarrera-erregistroan edota Gazteria eta Kirol Saileko bulegoetan (Euskadi Etorbidea 61, 20.110) aurkeztu beharko dute:

Honako agiri hauek aurkeztu behar dira:

- ✓ **Eskaera-orria .**
- ✓ **A eta B fitxak.**
- ✓ **Jardueraren urtea azaltzen duen publizitatea.**
- ✓ **Jardueran parte hartu dutenen izen-abizenak eta NANA edota beste egiaztagiriren bat.**
- ✓ **Ikusleak agertzen diren argazki edo bideo zati bat.**
- ✓ **Komunikabideetan jardueraren berri eman dutela erakusten duen dokumentu idatzia.**
- ✓ **Elkarteak dituen urteak ziurtatuko duen dokumentua.**
- ✓ **Federazioko ziurtagiri bat, honako datuekin:**
 - **Lizentzia- kopurua.**

- Errendimenduko eta jolas eta kiroleko lizentzia-kopurua.
 - Pasaitarra den edo ez (udaleko errolda-agiriak ere balio du azken honetarako eta izen-abizenak eta NANA edota beste egiaztagiriren bat jasotzen dituen zerrenda bat eranstea nahikoa izango da).
 - Lehia-maila edo parte-hartze esparrua.
- ✓ Elkarteen artean eginiko jardueren kasuan, elkarteen arteko hitzarmena.
 - ✓ Klubean lan egiten dutenen titulazioa; jatorrizkoa edo konpultsatua.
 - ✓ Pasaiaiko Kirol Sailarekin eginiko hitzarmenak.

6. ESKAERA AURKEZTEKO EPEA

Urteko ohiko jardueretarako diru-laguntza eskaerak, arautegi hau GAO n argitaratu eta hilabeteko epean egingo dira.

Ezohiko jardueretarako eskaerak, gutxienez, ekintza egin baino **hilabete eta erdi lehenago** eskatuko dira.

Eskaera-orrian edo honekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioan akatsak edo hutsuneak daudenean elkarteei hamar eguneko epea emango zaie horiek zuzentzeko, eta epe hori amaituta zuzenketarik egiten ez badute, ezin izango dute diru-laguntzarik jaso eta espedientea artxibatu egingo da. Era berean, datuak ezkututzen edo desitxuratzen badira diru-laguntza jasotzeko eskubidea galduko da.

7.- PUNTUAZIO-SISTEMA:

- Urteko programa guztiei emateko dugun diru-kopuru guztia eta ebaluazioaren arabera klub edo entitateek lortu duten puntu guztien zatiketa egin eta puntu baten ekonomia-balorea emango digu eragiketa horrek.
- Puntu batetik ateratzen den ekonomia-balorea, bider klub edo entitateek lortzen dituzten puntuak zehaztuko dute eman beharreko diru-laguntzaren kopurua.
- Baloraziorako adierazleak eta horien puntuazioa, honako hauek dira.

1. Ekintzen balorazioa: 18 puntu

- ⇒ Ekintzak egitasmo baten barruan sartuta dauden. _____ 3 puntu
- ⇒ Egitasmoaren kalitatea eta antolaketa (programak, inkestak...) _____ 3 puntu
- ⇒ Bertako kirolen sustapena. _____ 3 puntu
- ⇒ Ekintza-kopurua. _____ 3 puntu
- ⇒ Ekintzaren aldizkakotasuna. _____ 3 puntu
- ⇒ Emakumeak, 3. adinekoak eta elbarriak kirol munduan barneratzea (bai praktikan, bai zuzendari, kudeatzaile edo teknikari modura) _____ 3 puntu

*Oharra:

- Programa eta inkesten eredia prestatzeko, Gazteria eta Kirol Sailari laguntza eska dakiok.
- Gutxienez kirolak baloratu eta puntuatuko dira, horretarako zerrenda bat prestatu beharko da.

2. Ekintzen izaera: 20 puntu

- ⇒ Ekintzaren antzinatasuna. 5 puntu
 - 1-3 urte _____ puntu 1
 - 4-6 urte _____ 2 puntu
 - 7-9 urte _____ 3 puntu
 - 10-15 urte _____ 4 puntu
 - 15 baino gehiago _____ 5 puntu
- ⇒ Parte-hartzaileen kopurua. 5 puntu
 - 25-75 parte-hartzaile _____ puntu 1
 - 76-150 parte-hartzaile _____ 2 puntu
 - 151-250 parte-hartzaile _____ 3 puntu
 - 251-500 parte-hartzaile _____ 4 puntu
 - 500 baino gehiago _____ 5 puntu
- ⇒ Ikusle-kopurua. 5 puntu
 - 25-75 parte-hartzaile _____ puntu 1
 - 76-150 parte-hartzaile _____ 2 puntu
 - 151-250 parte-hartzaile _____ 3 puntu
 - 251-500 parte-hartzaile _____ 4 puntu
 - 500 baino gehiago _____ 5 puntu
- ⇒ Ekintzaren oihartzuna. 5 puntu
 - Euskal Herriko komunikabideetan _____ 5 puntu
 - Lurraldean _____ 4 puntu
 - Bailaran _____ 3 puntu
 - Herrian _____ 2 puntu

*Oharra: idatzizko komunikabideak izan beharko dira.

3. Elkartearen izaera: 21 puntu

- ⇒ Elkartearen ibilbidea, jarraitasuna, finkotasuna eta dedikazioa. 3 puntu
 - 1-2 urte _____ 0,5 puntu
 - 3-18 urte _____ puntu 1
 - 19-36 urte _____ 2 puntu
 - 36 baino gehiago _____ 3 puntu
- ⇒ Pasaitarren lizentziak izateagatik. 12 puntu
 - 1-4 pasaitar _____ puntu 1
 - 5-20 pasaitar _____ puntu 2
 - 21-40 pasaitar _____ 4 puntu
 - 41-60 pasaitar _____ 6 puntu
 - 61-80 pasaitar _____ 8 puntu
 - 81-100 pasaitar _____ 10 puntu
 - 100 baino gehiago _____ 12 puntu
- ⇒ Pasaitarrak ez diren lizentziak. 6 puntu
 - 1-10 ez pasaitar _____ puntu 1
 - 10-30 ez pasaitar _____ puntu 2
 - 31-60 ez pasaitar _____ 4 puntu
 - 60 baino gehiago _____ 6 puntu

4. Aurrekontu eta defizitaren arteko proportzioa: 14 puntu

Ondoko formula erabiliko da:

$$\frac{\text{Aurrekontua-defizita}}{\text{Aurrekontua}}$$

- ⇒ 0 – 0,2 _____ 4 puntu
- ⇒ 0,2 – 0,4 _____ 6.5 puntu
- ⇒ 0,4 – 0,6 _____ 9 puntu
- ⇒ 0,6 – 0,8 _____ 11.5 puntu
- ⇒ 0,8 – 0,9 _____ 14 puntu

5. Lokalik ez edukitzea eta udaletik beste diru-laguntzarik ez jasotzea: 2 puntu

- ⇒ Udalaren lokala badu _____ 0 puntu
- ⇒ Udalaren lokala beste talde batzuekin batera erabiltzen du _____ 1 puntu
- ⇒ Lokala badu, jabetzan edo alokairuan _____ 2 puntu

6. Beste erakunde batzuekin batera egindako programak: 3 puntu

- ⇒ Gehienez ere 3 puntu, ekintza bakoitzeko bat.

7. Heldu (19-65 urte) eta nagusientzako (65 urtetik gorakoak) jarduerak euskaraz: 6 puntu

- ⇒ %1 - %25 _____ 1,5 puntu
- ⇒ %25 - %50 _____ 3 puntu
- ⇒ %50 - %75 _____ 4,5 puntu
- ⇒ %75 - %100 _____ 6 puntu

8. Herri mailako elkartegintzaren sustapena: 32 puntu

- ⇒ Kirol atal kopurua: 3 puntu

Sekzio 1 _____	puntu 1
2 sekzio _____	2 puntu
3 sekzio edo gehiago _____	3 puntu

- ⇒ Errendimenduko lizentzia-kopurua:

1 edo 2 talde/ 8 edo 25 kirolari _____	puntu 5
3 edo 4 talde/ 26 edo 45 kirolari _____	10 puntu
5 edo 6 talde/ 46 edo 65 kirolari _____	15 puntu
7 edo 8 talde/ 66tik gora _____	20 puntu

- ⇒ Jolas- eta kirol-lizentzia kopurua:

1-8 kirolari _____	puntu 1.5
9-16 kirolari _____	3 puntu
17-25 kirolari _____	4.5 puntu
26-34 kirolari _____	6 puntu
35-50 kirolari _____	7.5 puntu

50 baino gehiago _____ 9 puntu

9. Kalitatearen sustapena alderdi teknikoetan, barne antolakuntzan eta administrazioan. 13 puntu

- ⇒ Jarduera Fisiko eta Kirol Zientzietan lizentziatu-kopurua. 4 puntu
 - Lizentziatu 1 _____ 2 puntu
 - 2 edo gehiago _____ 4 puntu
- ⇒ Hezkuntza Fisikoan espezializatutako Oinarrizko Hezkuntza Orokorreko irakasle-kopurua. 3 puntu
 - Irakasle 1 _____ 1.5 puntu
 - 2 edo gehiago _____ 3 puntu
- ⇒ Jarduera Fisiko eta Kirol Animazioko teknikaririkopurua. 2 puntu
 - Teknikari 1 _____ puntu 1
 - 2 edo gehiago _____ 2 puntu
- ⇒ Ingurune naturalean kirol Jarduera Fisikoak gidatzeko teknikari ertainen kopurua
 - Teknikari 1 _____ 0.5 puntu
 - 2 edo gehiago _____ puntu 1
- ⇒ Erantzukizun teknikoak eta prestakuntza ez-arautua duten pertsona-kopurua (begiraleak, entrenatzaileak...)
 - Pertsona 1 _____ 0.5 puntu
 - 2 edo gehiago _____ puntu 1
- ⇒ Epaile, arbitro edo antzekoen kopurua.
 - Pertsona 1 _____ 0.5 puntu
 - 2 edo gehiago _____ puntu 1
- ⇒ Bestelako teknikarien kopurua (fisioterapeuta, medikua, kirol enpresen zuzendaritza eta administrazioan espezializatua,...):
 - Teknikari 1 _____ 0.5 puntu
 - 2 edo gehiago _____ puntu 1

10. Lehia-maila edo parte-hartze esparrua. 61 puntu

- ⇒ Nazioarte edota estatu mailan _____ 8 puntu/taldeko
- ⇒ Euskal Herrian _____ 6 puntu/taldeko
- ⇒ Gipuzkoan _____ 4 puntu/taldeko

11. Pasaia Udaleko Kirol Sailarekin elkarlanean aritu izana. 12 puntu

- ⇒ Ekintza batean _____ 4 puntu
- ⇒ 2 ekintzetan _____ 8 puntu
- ⇒ 3 edo gehiagotan _____ 12 puntu

* Oharra = 50. urteurrenaren kasuan, gehiengo diru-laguntza 600 eurokoa izango da; eta 75. urteurrenaren kasuan, 750 eurokoa.

8.- EBALUAZIOA:

Kirol Patronatuak eskaerak aztertu eta ebaluatu egingo ditu. Ondoren organo eskudunari egingo dio proposamena.

Kluben batek udalarekin udal instalazioak erabiltzeagatik zorren bat badu, dagokion diru-laguntzatik zorraren kopurua **kitatuko** da.

Diru-laguntza emateko eta diru-kopurua zehazteko, ordenantza honi erantsita doan 1. eranskinean azaltzen denaren arabera, ondoko alderdi hauek neurtuko dira, eta eskaerarekin batera aurkeztuko den memorian jasoko dira:

- Egitasmoa.
- Aurrekontua.
- Ekintzen izaera.
- Elkartearen izaera. Pasaitarren eta pasaitarrak ez direnen lizentziak.
- Lokala izatea edo ez izatea.
- Erakunde gehiagorekin batera eginiko jarduerak.
- Euskaraz eginiko jarduerak.
- Herri mailako elkartegintzaren sustapena.
- Jolas eta kirolaren sustapena.
- Kalitatearen sustapena alderdi teknikoetan, barne antolakuntzak eta administrazioan: titulazioak.
- Lehia-maila edota parte-hartze esparrua.
- Pasaiako Udaleko Kirol Sailarekin elkarlanean aritu izana.

Ondoren aipatzen diren eskaerak ez dute diru-laguntzarik jasoko.

1. Eskola Kirola egitasmoa.
2. Inbentarioko materiala erosteko (altzariak, informatika, gaiak, audobisualak...)
3. Bulegoko gastuak ordaintzeko.
4. Lokaletan konponketak eta obrak egiteko
5. Nominak eta lansariak ordaintzeko.
6. Otorduak.

9. HIZKUNTZA BALDINTZAK

Euskararen erabilera normalizatzeko ahalegin handia egiten ari da udala azken urteotan eta honekin batera baita euskalgintzan diharduten beste hainbat erakunde eta elkarte ere. Baliabide ekonomiko asko eskatzen ari da prozesu hau, eta diru-laguntzen banaketa ere euskararen erabilera sustatzeko neurriekin bat etor dadin, ondorengo hiru ataletan arautu nahi da elkarten hizkuntza erabilera:

1. Ekitaldi publikoak eta argitaratzen diren idatziak, iragarkiak, propaganda, publizitatea...
Pasaiako euskararen erabilera normalizatzeko udal ordenantzaren 45. artikularen 1. puntuan jasota dagoena derrigorrez bete beharko dute elkarteek diru-laguntza jaso nahi badute.
Beraz, diru-laguntza jasotzen duten jardueretan argitaratzen diren idatzi, iragarki, ohar, propaganda, publizitate eta gainerakoak euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz idatzi eta ezagutzera eman beharko dira.



Ekitaldi publikoetan ere, ahozko zein idatzizko jarduna euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz egin beharko da, beti ere euskarari lehentasuna emanaz.

1. Elkarateak antolatzen dituen jarduerak.

Pasaiako Udalak, euskararen normalizaziorako lehentasunezko esparru eta adin taldeak ezarriak ditu. Haur eta gazteak eta hauen inguruneak edo errealitateak dira lehentasun.

Pasaiako haur eta gazteen %99 euskal ereduetan ikasten ari da, eta eskolatik kanpora ere jarduerak euskaraz egiteko aukera eskaintzen ez bazaie, eskolan jasotzen ari diren hizkuntza finkatu ez eta, kasu askotan, gainera galdu ere egiten dute. Horrexegatik, eskolaz kanpo duten errealitateetan eragitea oso garrantzitsua da haur eta gazte hauek euskara naturaltasunez jaso eta erabil dezaten. Beraz, bai familia eta baita eskola orduz kanpoko jarduerak ere oso esparru garrantzitsuak dira, eta hauetan eragin behar dugu. Udala ari da ahalegin horretan, baina herriko gainontzeko elkarateak ere antolatzen dituzue hauentzako jarduerak, eta zuek ere ahalegin horretara bideratzeko ezarri nahi dira ondorengo baldintza hauek.

Udalak ezarrita dituen lehentasunei jarraiki, bi atal bereiziko dira puntu honetan: batetik, haur eta gazteei zuzenduriko jardueretarako hizkuntza baldintzak jasoko ditugu; eta bestetik, heldu eta nagusientzat antolatzen diren jardueretarako.

2.1. Haur eta gazteentzako jarduerak

2-18 urte bitarteko haur eta gazteentzako jarduerak euskaraz antolatzeko dagoen beharrari erantzuteko, elkarateak haienez antolatzen dituzten jarduerak euskalduntzeko neurriak hartu behar dituzte. Udalak ahalegin hori hasi zuen Eskolatik Kalera egitasmoarekin orain 6 urte; hitzarmenak sinatu zituen herriko elkarateekin, bide horretan bere laguntza eskaintzeko. Orain, ordea, hurrengo urratsa emateko garaia iritsi dela irizten du eta diruz lagundutako jardueretako hizkuntza erabilera arautu nahi du.

Haur eta gazteek jarduerak euskaraz behar badituzte hala antola ditzaten eskatuko die udalak elkaratei, gaur egun gainera gehienek hala egiten dute jada. Eta, oraindik ere gaztelaniaz antolatzen dituzten elkaratei euskaraz antolatzeko epe bat jarriko die, progresiboki neurriak hartzen joan daitezten.

Bost urteko epean Pasaiako haur eta gazteei jarduera guztiak euskaraz eskaintzea dugu helburu, eta diru-laguntzen banaketan ere epe hori ezarriko dugu. Beraz, baldintza horiek betetzen ez dituen elkarateari diru-laguntza zati bat kendu egingo zaio, ondoren zehazten den modu honetan:

- 2002/2003 ikasturtean, hizkuntza baldintza hau betetzen ez duen elkarateari diru-laguntza %5 murriztuko zaio.
- 2003/2004 ikasturtean, %10.
- 2004/2005 ikasturtean, %15.
- 2005/2006 ikasturtean, %20.
- 2006/2007 ikasturtean, %25.

Hortik aurrera, baldintza hori betetzen ez duen elkarateari jarduera horretarako ez zaio diru-laguntzarik emango.

2.2. Heldu eta nagusientzako jarduerak

Adin tarte hauetan euskaldun gutxiago dago baina taldeak osa daitezkeenez, ahalegin hori egiten duen elkaratea saritzea da atal honen xedea. Beraz, jarduerak euskaraz antolatzen dituen elkarateari jarduera horiek gehienez ere 6 punturekin



baloratuko zaizkio, eranskineko 7. puntuari adierazten den moduan, eta beraz, diru-laguntza gehiago jasoko du.

3. Elkartearen beraren eguneroko jarduna

Elkarteko eguneroko jardunean ere euskara sustatzeko neurriak hartzen saiatuko da elkarteak, elkarteko kideen arteko euskararen erabilera areagotzeko: barne bileretan, barne idatzi eta errotuluetan, eta abarretan.

10.- DIRU-LAGUNTZAREN ZENBATEKOA, BIDERATZEA ETA ORDAINKETA:

Kirol Patronatuak diru-laguntzen behin-betiko emaitza dagokion udal batzordeari jakinarazi aurretik, klub eta kirol entitateek egin ditzaketen erreklamazioei erantzun ahal izateko, horiei behin-behineko proposamenaren emaitza helaraziko die. Taldeek hamar eguneko epea izango dute jakinarazpena jaso eta beharrezkoa deritzotena argudiatzeko. Horrelakorik izanez gero, Kirol Patronatua berriro bilduko da alegazioari beharrezko irtenbidea emateko. Ondoren ahalmena duen udal organoari behin betiko proposamena jakinaraziko dio.

Ordainketak dagokion udal organoak diru-laguntzak onartu ondoren egingo dira. Ohiko bideak erabiliko dira horretarako.

11.- OINARRIAK BETETZEN EZ DIRENEAN:

Oinarri hauetan ezartzen direnak betetzen ez badira, edota diru-laguntza ematean eginbeharren bat betetzen ez bada, tramitazioa berraztertuko egingo da. Hala behar denean, diru-laguntza deuseztatu egingo da, edota emandako diru-kopurua gutxitu.

12.- DIRU-LAGUNTZAK KONTROLATZEA:

Taldeek jarritako datuak egiazkoak direla eta diru-laguntzak ongi erabiltzen direla egiaztatzeko, Kirol Patronatuak berraztertzeko ahalmena izango du.

Oinarri hauei buruzko zalantzaren bat sortzen bada, Kirol Patronatua arduratuko da hori argitzeaz.